


Jubilazio akordioa deusezteari EZ! Kontzentrazioa Bilbon Azaroaren 29an

Dakizuen moduan urriaren 20ko Gobernu Kontseiluak EHUko langileak erretiro egoerara igarotzeko neurri berriak onartu zituen, langileen jubilazioa sustatzeko urteetan indarrean egon diren akordioak alde bakarretik bertan behera utziz.



EHUko zuzendaritzaren asmoak zeintzuk ziren argi geratu zenean LABetik salaketa eta informazio kanpaina bat abiatu genuen. Batetik, Errektoretza honen jarrera eta erabakia salatzeke, eta bestetik, langilegoa egoera berriak dakartzan murrizketez informatzeko. Bihar, azaroak 29, 10:00etan hasita, EHUko Klaustroa burutuko da EHUren Bilboko Bizkaia Aretoan.

LABek, hasitako kanpainari jarraipena emanez, **langile guztioi dei egiten dizue EHUK Bilbon duen Bizkaia Aretoaren aurrean 9:30etarako deitu dugun protesta kontzentrazioa bertaratzeko** eta EHUko Gobernu Taldeari hartutako erabaki larrien aurrean gure gaitzespena luzatzeko, eta jubilazio akordioetara bueltatzeko eskatzeko.

Jubilazio akordioak deuseztatzeari ez! Plantilla gaztetu eta egonkortu!

LABek klaustroan sostengatutako galderak eta errektoretzatik jasotako erantzunak [hemen](#) daukazue.